



## Villabonako Kale Nagusiko berritze lanen bigarren fasea abiarazi dute

**TARTEA** ▶ Errebote plazatik Subijana etxearen arteko zatian ari dira lanean; oinezkoentzat bidea itxi dute ▶ 3



Kale Nagusian joan den astelehenean hasi zituzten berritze lanak. I. GARCIA

**TOLOSA** ▶

## «Gizartearen parte-hartzea» bultzatzeko akordioa sinatu dute Ibarretxek eta Eudelek

Tolosako Udalak ere hasiko du ekimena; atzo sinatu zuten hitzarmena Lehendakariak eta Sainz de la Mazak ▶ 2

M. SOROA



## ‘Jarrai-Haika-Segi’ auziko inputatuei babeserik eman diete eskualdekoek

**TOLOSALDEA** ▶ Ibarra, Amezketa, Anoeta, Villabona, Amasa eta Tolosako gazteek egin dute bat oraingoz atxikimenduarekin; bihar mobilizazioak egingo dituzte ▶ 7

**TOLOSA** ▶

## Zazpi urteko kartzela zigorra egotzi diote 27 urteko gazte bati

Gizon bati labana lepoan sartzeagatik hilketa delitua leporatu diote ▶ 7



Gernikako Arbola, 1 • TOLOSA

TELEFONOA DOAN

+

%50eko deskontua betiko

Euskaltelen kontratu bidezko bezero bazara

## POLITIKA ▶

# «Parte-hartzea» bultzatzeko akordioa Ibarretxek eta Eudelek

Tolosako Udalak ere hasiko du ekimena; atzo sinatu zuten lehendakariak eta Karmelo Sainz de la Mazak hitzarmena

## ESTI EZEIZA

Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Eudelek —Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Udalen Elkartea— akordioa sinatu zuten atzo goizean, «gizartearen parte-hartzea bultzatu aldera, ETARI ezinezkoa bihurtzeko berritako abiatuak egitea». Madrilo Barajas aireportuko T4 terminalean eginiko atentatuaren ondoren, «ETAk herriaren ilusioak apurtu ditu berriro ere», Ibarretxeren eta Eudelen ustez.

«Amildegira ez joateko» sare sozial indartsua eratu eta gi-

zartearen parte-hartzea bideratu behar dela uste du Ibarretxek.

Hori dela eta, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Eudeleko presidente Karmelo Sainz de la Mazak sinatu dute hitzarmena, Gasteizen. Honen ondoren, Euskal Herriko zenbait herrietako eta hirietako udaletan abiatuko dute ekimena. Tarte- an izango da baita ere Tolosako Udala.

## Ekimen zabala

Ekimena 3 probintzietara zabaldu dute, izan ere, Durango, Gauegiz-Arteaga, Gernika-

Lumo, Leioa, Mungia, Azkoitia, Donostia, Bergara, Amurrio eta Laudioko udalek abiatuko dute, Tolosakoarekin batera.

«ETAren aurreko su-etena bukatu zenean amildegira joan ginen. Orain ere berriro joan behar al dugu?», galdetu du Ibarretxe lehendakariak. «Amildegira ez joateko, bide bakarra dago: sare sozial indartsua eratu behar dugu eta gizartearen parte-hartzea bideratu, beste aukera bat lantzeko eta lortzeko», berretsi du lehendakariak.

Gorka Espiau Elkarriko zuzendaritzako kide ohia ari da ekimena koordinatzen.

## EKONOMIA ▶

## Espainiako aurrekontuak aztertu ditu PSE-EEK

1.092.000 euro kirol eta kultur arloetarako



Manuel Huertas eta Oscar Renedo Tolosako zinegotzia. E. EZEIZA

## E. EZEIZA

Espainiako Estatuko Aurrekontu Orokorrean dauden eta Tolosan eragina izango duten proposamen eta zuzenketak aurkeztu zituzten atzo Tolosako zinegotzi den Oscar Renedok eta Manuel Huertas PSE-EE alderdiko Espainiako Kongresuko diputatuak.

Denera, 1.092.000 euro bideratuko dituzte datorren urtean Tolosako proiektuen kudeaketarako. Horietatik, 500.000 euro Txotxongiloen Nazioarteko Egoitzara bideratuko dituzte. Beste horrenbeste zuzenduko da, Kirol Teknikazioko Egoitzaren zuzenduko da, Kirol Teknikazioko egoitzara. Egitasmo honekin txirrindularitza bultzatu nahi du Udalak, eta PSE-EE alderdiak babes eman nahi dio. Gainontzeko 92.000 euroak Tolosako Ekinbide Etxeari emango zaizkio, kultur arloan egiten duen lan handiagatik.

Huertasen esanetan, lan handia egin ondoren lortu

dute diru hau, «izan ere, kostu altua suposatzen duten proiektuetan bakarrik hartzen du parte Espainiako Gobernuak, eta hainbat zuzenketak aurkeztu behar izan ditugu hau aurrera eraman ahal izateko».

Aurkezpenaren amaieran gaitzespenerako tartea ere izan zen. Halaber, PSE-EEko ordezkarien ustetan «Eusko Jaurlaritza ez da gai izan txirrindularitzarako 500.000 euro emateko». 2006ko aurrekontuetan agertzen zenaren arabera, diru kopuru hori Kirol Teknikazioko Egoitzaren zuzenduko izan behar zuen. Baina Gobernuak zuzenean Tolosako Udalarri ezin zionez entregatu dirua, lehenengo Eusko Jaurlaritzari eman zion, eta honek egin behar zuen transferentzia. Baina hau ez du egin Jaurlaritzak. Horregatik, azalpenak jasotzearen, Parlamentuan agertze bat egitea eskatuko dute PSE-EE alderdikoek.

## GIZARTEA ▶

### Tolosa CFren urteko ohiko batzarra

Tolosako urteko batzarreko deia egiten du. Datorren ostegunean izango da, 19:30ean eta 20:00etan. Jorratuko dituzten gaiak, aurreko aktaren irakurketa eta onespena; kontuen egoera eta 2007ko aurrekontua dira, besteak beste.

## GIZARTEA ▶

### Gure Txokoako bazkideen bilera igande honetan

Igande honetan, hilak 14, Gure Txokoako elkarrekin bere ohiko bilera egingo du. Hori dela eta, bazkide guztiei deialdia luzatzen diete hara joateko eta parte hartzeko. Lehendabiziko deialdia 10:30ean izango da, eta bigarrena, 11:00etan.

## KULTURA ▶

### 'Workingman's death' ikusgai, Zine-forumean

Michael Glawogger zuzendariaren *Workingman's death* filma izango da ikusgai gaur Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean. Dokumental honek kapitalismoak eta globalizazioak lurralderik txiroetan sortu dituen hondamendiak gogorarazten ditu.

# hitza txokoaren

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

IRURA ▶

**Aerobik eta egur tailan izena emateko aukera**

Aerobik eta egur taila ikastaroetan izena emateko aukera dago. Aerobik astelehenean, asteazkenetan eta ostiraletan egiten da, 15:30etik 16:30era. Egur taila, berriz, asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara egiten da. Interesatuak ikastaroetara joan eta irakaslearekin hitz egin beharko dute.

ZIZURKIL ▶

**Historia liburua eskura Udalaren egoitzetan**

*Gizarte tradizionala Zizurkilan (1615-1800)* liburua eskuratu nahi duenak, Udalak etxeetara bidali duen eskutitzarekin agertu behar du udaletxera edo udal bulegoetara. Bestalde, eskuragarri daude baita ere Udalaren egoitzetan 2007ko Zizurkilgo egutegiak.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**  
Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroako dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ **DYA:** 672536
    - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
    - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
    - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

# Kale Nagusiaren berritze lanen bigarren fasea abian

Errebote plazatik Subijana etxearen bitartean egiten ari dira lanak



Egunotan kalea zulatzen ari dira, gero instalazio berriak sartzeko. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Kale Nagusiaren eraberritzearen bigarren fasea aste honetan hasi dute. Errebote plazatik Subijana etxera bitartean hainbat moldaketa egingo dituzte. Alde batetik, kalearen azpitik doazen instalazioak berrituko dituzte, hau da, gasaren hodia ez beste guztiak: komunikazioak, argindarra, saneamendua eta euria bideratzeko instalazioak... Bestetik, oinezkoentzako egokituko dute kalea. Beraz, espaloia kendu eta bide guztia altuera berdinean utziko dute.

Construcciones Aburuza enpresa da lanak egiten ari dena. Hain zuzen, enpresa hori da Salvadora eremuko etxebizitzak eraikitzen ari dena. Eraikitze lan horien esleipenaren baitan sartzen zen ere aipatutako Kale Nagusiko zatiaren berritzea. Astelehenean hasi ziren lanak eta enpresaren arabera bi hilabete inguru iraugo dute lanek.

**Bertakoentzat zabalik**

Obrak irauten duten bitartean kalean mozketak egingo dituzte, Udalak bando bidez adierazi duenez. Kale Nagusiko zati



Errebote plazatik Zubimuraino oinezkoentzat jarrita dago. I. GARCIA

**KALE MOZKETA**

Kale Nagusia ezin da erabili igarobide bezala; langileek dagoeneko zenbait oinezkori bidea itxi behar izan diote

horretan bizi direnek, bertan dendak dituztenek edo denda horietako bezeroek izango dute aukera lanak egiten ari diren eremuetara pasatzeko. Horrela, Kale Nagusia ezin da erabili igarobide bezala, hau da, egungo haurtzaindegitik plazara joateko edo alderantziko bidea egiteko.

Obrako langileek azaldu duteenez, lehen egun hauetan zenbait oinezkori bidea itxi egin behar izan diote dagoeneko. Bai kalearen alde batean eta bai bestean hesiak jarrita daude eta hauetan oinezkoak ez pasatzeko kartelak —gaztele-ratz bakarrik—.

**Espaloiрик gabe**

Lanak amaitu ondoren Kale Nagusiak zer-nolako itxura izango duen jakitea badago. Lehenengo fasea, hau da, Errebote plazatik Zubimuraino bitarteko zatiko lanak eginda daude eta zorua oinezkoentzat jarri dute. Zati horretan guztian espaloia kendu egin dute, beraz.

Oinezkoentzat jarri badute ere, garraioak ere igarotzen dira. Eta espaloiрик ez egoteak ibiltzeko erraztasunak ematen baditu ere, ibilgailuengandik ematen duen segurtasun sentzazio hori ere ezabatzen da. Horregatik, komeni da gidariek segurtasun neurriak area-gotzea oinezkoen eremuetan.

**Alkizako Udala**

**IRAGARKIA**

Udalbatzarrek 2006ko azaroaren 28an hartutako akordioaren arabera Alkizako Udalaren jabetzakoa Ostatu taberna-jateetxea zerbitzu publikoaren zeharkako kudeaketa emakida bidez esleitzeko lehiaketa deialdia argitaratu ematen da. (GAO 2006-12-27)

Deialdia arautzen duen baldintza administratibo partikularren plegua Alkizako Udaltzaingoa eskuratu daiteke. Eskeintzak aurkezteko azkeneko eguna: 2007ko otsailaren 2a.

Alkizan, 2007ko urtarrilaren 10ean, Alkatea.



KULTURA ▶



Erreleboa antzezlanoa une bat. LEIRE MONTES

# ‘Erreleboa’ antzezlana taularatuko dute bihar Leidor aretoan

20:00etan hasiko da Txalo antzerki taldearen lana; azken emanaldietakoa izango da Tolosan eskainiko dutena

## ERREDAKZIOA

Txalo antzerki taldeak *Erreleboa* antzezlana eskainiko du bihar, 20:00etan, Leidor aretoan. Begoña Bilbaok zuzenduta, Iker Galarza eta Joseba Usabiaga tolosarrak dira antzezleak, eta Ernesto Caballerok idatzitako lana da taularatzen dutena.

1985. urteko neguko gau batean kokatzen da antzezlana. «Algezirasen bi lagun soldaduskan. Ez, bi ezagun. Edo lagun egingo diren bi ezegagun. Edo elkar ezagutzeko aukerarik ere izango ez duten bi lagun. Azken finean, bi euskaldun etxetik kanpo. Bata soldaduska amaitzekotan. Bestea hasi berritan». Horrela auzetzen du Txalo taldeak *Erreleboa* komedia.

Antzezlanean «esperientzia, inozentzia, adiskidetasuna, inbidia, borroka, leialtasuna» agertzen dira, «denak batera, denak gau batean. Bata bestearen kontra eta bata bestearekin bat. Esperientziak konpartitzeko, bizipenak eta bizimnak kontatzeko gau aparta». Agustín eta Joxe dira protagonistak: «Soldaduskaren esklabo. Bizitzaren morroi. Jaioterriaren karga. Etxekoen nostalgia». Azken finean, Algezirasen gau bat, «batzuetan bizi, bestetan motel, gau hotz bateko erreleboa».

Tolosan, bada, Leidorren estreinakoz ikusteko aukera izango da antzezlana hau, eta gainera, tolosarrak eskaintzen ari direnetan azken emanaldietako bat izango da.

**Etxean gelditzeko zatoz Euskaltelen Saltoki batera.**

**Ez itxaron gehiago Zatoz urtarrilaren 31 baino lehenago**

Euskaltel da zure benetako etxea, zuri dagokizuna, hortxe baitago konfiantza ematen dizun jendea, zurekin konprometitzen dena. Baina Orain, Euskaltel telefonia mugikoraren parte izaten jarraitzeko, gure saltokietako batean berretsi beharko duzu. Izapide erraza da, eta, gainera, aparteko abantailak lortuko dituzu.

**Euskaltelen zaude. Zure etxean zaude.**

Zoaz Euskaltelen Saltoki batera

euskaltel  
ZURETZAT

**Urtarrilaren 12tik aurrera zabaltzen dugu**

**Ergoiena auzoa**  
Tel.: 943 18 01 19  
20211 ATAUN



*“Euskaltekin hasi nintzenean,  
mugikorrek zuri-beltzekoak ziren.”*

*“Hara, Euskaltekin hasi nintzenean, mugikorrek zuri-beltzekoak ziren. Telefonoz hitz egin besterik ezin zen egin horiekin. Orain, ordea, G3 bat daukat; gauza-piloa egin daitezke harekin, baina ziur aski nik erabili ere ez ditut egingo aukera horiek. Baina hobereana da asteburuetako deiak doan direla. Horrela, hor nonbait dabiltzan bilobei hots egin ahal izango diet!”*

*Denontzat da telefonia mugikor berria.*

Eskatu informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.

euskaltel   
ZURETZAT

## ALEGIA ▶ GIZARTEA

# Gorputza eta estetika lantzeko ikastaroak

Pilates, makillajea, larruaren zainketa eta sukaldaritzaren begetarianoa dira aurten Kultur Etxean egingo dituztenak

## ERREDAKZIOA

Alegian urte berriarekin batera hainbat ikastaro antolatu dituzte Kutxaren laguntzarekin; zehazki, Pilates, makillajea, larruazalaren zainketa eta sukaldaritzaren begetarianoa izango dira. Guztiek ere fisikoari, gorputzari ematen diote garrantzia, asko, osasunarekin lotuta gainera. Hala ere, ikastaro gehiago eskainiko dituzte aurrerantzean. Guztiak Inaxio Begiristain kirol eta kultur etxean egingo dituzte, sukaldaritzaren ezik: hau Txintxarri elkartearen egingo da.

Pilates metodoa oinarri duen gimnastikako 1. maila 18:00etatik 19:30era ostegunero izango da eta lehen eguna otsailaren 8an da. Abenduaren 20ean bukatuko dituzte eskolak. 36 ordu hauetarako 85 euro ordaindu behar dituzte interesatuek.

Bada Pilates metodoa oinarri duen gimnastikako bigarren maila ere. Hauek asteartean izango dira, 18:00etatik 19:30era. Otsailaren 6a izango da lehen eguna eta abenduaren 11n amaitzen dira. Honek,



Sukaldaritzaren begetarianoa izango da Txintxarri elkartearen. HITZA

aurreko ikastaroak bezala 85 euro balio du.

Gorputzarekin, eta batez ere estetika eta osasun kontuekin loturik dagoen ikastaroa, oraingoan, makillajearena eta larruazalaren oinarriko zainketa izango da. Astezkentan bi orduz, 18:00etatik 20:00etara, apirilaren 18tik maiatzaren 16ra bitarte, eta 46 euroren truke izango da. Guztira 10 orduko iraupena dauka

ikastaro honek. Bestalde, Txintxarri elkartearen egingo duten sukaldaritzaren begetarianoa ikastaroa ere badago: asteartean izango da, 18:00etatik 20:00etara bitarte, eta otsailaren 27tik martxoaren 27ra iraungo du. Prezioa 41 eurokoa da.

## Izen-ematea

Ikastaro hauetan izena emateko epea gaur hasi da, eta hilaren 23ra bitarte izango da aukera, bai internet bidez, [www.begira.net](http://www.begira.net) orrian, eta bestela 902 54 00 40 telefono zenbakira deituta. Ikastaro hauei buruzko informazioa eskatzeko, berriz, Alegiko Kultur Etxera gerturatu edo 943 65 46 98 telefonora deituz lortu ahal izango da.

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43ra.

## LANA

**Banatzaila.** Baserriko produktuak banatzeko banatzaila bat behar da. 943 68 22 14.

**Gitarrak-jolea.** Erromeri talde batek

gitarrak-jolea behar du. Interesatuek deitu 665 70 17 75ra.

**Sukalde-laguntzaileak.** Sukalde-laguntzaileak eskoletarako, udalbebetarako. 943 44 48 66.

**Gidariak.** Gidariak erakunde publikoetarako. Interesatuek deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

**Zerbitzaria.** Zerbitzari bat behar dugu larunbat arratsaldetarako eta igande goizetarako. Telefono zenbakia: 650 04 31 39.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## ALEGIA ▶ AHT



259 sinadurak Alegiko Udalan aurkeztu zituzten momentua. n. u.

## Hurrengo batzarrean AHT izango da mintzagai

259 herritarrek proiektuari buruzko informazioa eskatu zuten sinaduren bidez

## ERREDAKZIOA

Alegiko Udalak hilabetearen azkeneko ostegunean, hau da, hilaren 25ean, batzarra egingo du. Besteen artean, AHT izango da eztabaidagai, 259 herritarrek hala eskatuta.

Alegiko herritar talde batek «AHTri buruzko iritzia eta informazio gabezia konpontzeko balioko zuen ekimen bat» martxan jarri zuen duela bi hilabete. Hala, herriko bizilagun guztiei euren helburuak azaltzen zituen gutun bat banatu zuten. Funtsean, gutun horretan AHTri buruzko informazioa jaso nahi zutenek sinatzeko aukera ematen zuten, ondoren Udaletxean aurkezteko, eta gero, «informazioa garaia» helduko litzateke.

«Bukaeran, alegitarren iritzia zein den jakin ahal izateko herri kontsultaren eguna» izango lukete Alegian. Idatzi honekin ados zeudenak 259

izan ziren: Udalean aurkeztu zuten eta herriko ordenantzak dioen moduan, «16 urtetik gorako biztanleriaren %7ak guztienez herri kontsulta egitea eskatzen badu, Udalak herri kontsulta antolatu beharra du». Honen harira, %10ak baino gehiagok hartu du parte sinadura bilketan.

## Informaziorik ez

Imanol Artano ingurumeneko zinegotziak esan duenez, «Eusko Jaurlaritzako garraio sailetik ez dugu informaziorik jaso, eta ziurrenik ezta jasoko ere; ezekoa eman dio informazio eskaerari». Horregatik, Alegiko herritar talde bat («batekin eta bestearekin» ari da informazioa eskuratzen eta jasotzen. Dena dela, «AHTri buruzko informazioa noiz eman-gogun ezin dugu data zehatzik eman, oso lan handia baita».

## AMEZKETA ▶

### Amezketako herri eskolako sarien zenbakiak

Amezketako herri eskolaren aldeko Gabonetako zozketan saritutako zenbakiak hauek izan dira: 187ak otarra saria jaso du. Altzian asteburu bat igaroko du 2.502. zenbakia duenak, eta azkenik, afora edo bazkaria eskuratu du 360. zenbakidunak. Guraso elkarrean izenean esker-rrak eman dizkiete laguntza eman duten guztiei eta bidez batez, zorionak eman.

## ALEGIA ▶

### AKO aldizkariko egutegiak udaletxean

Aurten ere AKO aldizkariak, argazki taldea eta Zazpi Astoren Gainean bertso eskolarekin batera egutegi bat plazaratu du, herriko argazki zaharrez osaturikoa, hain zuzen ere. Egutegia etxeetara banatu duten arren, soberan dauden aleak udaletxean utzi dituzte. Beraz, herriko argazki zaharrak edukitzeko interesa duenak pasa dadila udaletxetik.

## ALEGIA ▶

### Intxurre futboleko norgehiagokak hiru egunetan

Hirugarren doazen Intxurre areto futbol taldeko neskek bihar 21:00etan jokatu dute Alegian, Aldapetaren aurka. Lurraldekakoek Axularren kontra izango dute igandean 12:00etan, Donostian. Jubenilek Alegian izango dute etzi Usurbilen kontra, 15:30ean. Kadeteek, berriz, Elgoibarren kontra etxean izango dute partida, etzi, 10:00etan.

IBARRA ▶ POLITIKA

MADDI SOROA

Tolosaldeko hainbat gazte taldek *Jarrai-Haika-Segi* auziko epaituei babesa eman zieten atzo Ibarra Kultur Etxean eginek agerraldian. Auzipetuei babesa eman zieten taldeen artean, Ibarra Kultur Etxean, Amasako Gazteak, Villabonako Onddo Gazte Asanblada eta Tolosako Sanblaspeko Taldea daude oraingoz.

Ekitaldi honen bitartez, hilaren 18a baino lehen kaleratuko den *Jarrai-Haika-Segi* epaiketako auzipetuei babesa emateaz gain «epaiketa salatu» nahi izan dute aipaturiko talde ezberdinek. Era berean, bai Segiko partaideek baita *Jarrai-Haika-Segiko* auzipetuei babesa eman dieten taldeek ere, bihar burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egin diote eskualdeari.

Biharko mobilizazioak Tolosan eta Villabonan izango dira. Tolosan, goizeko hamarretan geldialdia egingo dute ikastetxeetan. Ondoren, Triangulo plazatik abiatuta manifestazioa egingo dute, *Segi Antolatzen, Segi Borrokatzen, Independentzia eta Sozialismoa* lelopean. Iluntzean, Villabonan ere egingo da manifestazioa zazpi eta erdietan plazatik abiatuta, lelo berarekin.

2005etik datorren auzia

2005ean hasi zen *Jarrai-Haika-Segi* izenez ezaguna den kasuaren epaiketa. Une haietan, epaiturik dauden 24 gazteetako asko hiru eta lau urterako «behin-behinean» kartzelan sartu zituzten. Une «gogor» horien ondoren, ordea, epaia plazaratu zuten ekainean. Atera berria zen epaiaren ondorioz, bi eta hiru urteko zigorrak ezarri zizkieten gazte gehienei. Auzitegi Nazionalak «legez kontraktatz» jo baitzuen Segi erakundea.

2005eko ekainaz geroztik, Fiskaltza eta AVTek helegiteak jarri ditu, batetik gazteei «terrorismo» delitua leporatzeko,

# Eskualdeko gazteek babesa eman diete Segiko auzipetuei

‘Jarrai-Haika-Segi’ «epaiketa salatu» eta «biharko mobilizazioetan parte hartzeko» deia egin du Segik



Eskualdeko gazte talde ezberdinek babesa adierazi zioten *Jarrai-Haika-Segi* auziko inputatuei. MADDI SOROA

eta bestetik Segi erakundea «terrorista» izendatzeko. Errekurtsoa beteko balitz, gutxienez zortzi urteko kartzela zigorrak bete beharko lukete gazteek. Era berean, Segik azaldu duenez, «epaiketa hau Euskal Herriaren nazio eraikuntzan diharduten sektore eta eragile askoren aurkako epaiketen aurrekari izan daiteke».

Segik adierazi duenaren arabera, hilaren 18a baino lehen aditzera emango den ebazpena «ez da soilik 24 gazteren kontrako epaiketa, Euskal Herriaren aldeko hautua egiten dutenen kontrako epaiketa baizik». Hori dela eta, «eraso berri honen aurrean Segik independentzia eta sozialismoaren bi-

dean antolatzen eta borrokatzen jarraitzeko konpromisoa» berretsi du, «hori delako gazte-erantzak eta herri honentzat askatasunerako bide bakarra». Segik esan bezala, «euskal gazteriarren antolatze eta

borrokatze eskubidea epaitu nahi da», horregatik, manifestu bat kaleratu du. Manifestuak, babesa helarazten dio Segiri batetik, baita bere jardueren zilegitasun osoa onartu ere.

**MOBILIZAZIOAK ▶**

Hona hemen biharko deituriko mobilizazioen inguruko zenbait datu.

**TOLOSA**  
**10:00.** Ikastetxeetan geldialdia egingo dute.  
**11:30.** Triangulo plazatik abiatuta manifestazioa izango da *Segi Antolatzen, Segi*

*Borrokatzen, Independentzia eta Sozialismoa* lelopean.

**VILLABONA**  
**19:30.** Villabonako plazatik abiatuta, manifestazioa izango da *Segi Antolatzen, Segi Borrokatzen, Independentzia eta Sozialismoa* lelopean.

TOLOSA ▶

## Zazpi urteko kartzela zigorra 27 urteko gaztearentzat

Hilketa delitua leporatzen diote, gizon bati lepoan labana sartzeagatik

ERREDAKZIOA

27 urteko tolosar bati zazpi urteko kartzela zigorra ezarri diote, 2003an gizon bat labana hiltzen saiatzeagatik. Gertaera Tolosako taberna baten kanpoan gertatu zen, gazteak gizonari lepoan labana sartu eta jugularra ebaki zionean. Hori horrela izanik, akusatua ezingo da kolpatarengana gerturatu besterik. Bestalde, eragindako lesio eta ondorioengatik, 5.225 euroko kalte-ordaina ordaindu beharko du.

Gipuzkoako Audentziako sententziak dioenaren arabera, 2003ko ekaineko gau batean gertatu zen ezbeharrak, biktima Tolosako Plaza Berriko taberna batera joan zenean. Tragoa eskatu ondoren, tabernaren kanpora irteten eta inputatuarekin egin zuen topo, lehenago beste toki batean egin zuen bezala.

Epailearen erabakiak diotenaren arabera, «arrazoi ezezagunengatik bi gizonen eztabaida laburra hasi zuten». Ondoren, «biktimak akusatua besoetatik eutsi eta lurre-ra bota zuten». Biktima tabernara sartzeaz zegoenean auzipetua «lurretik altza eta labana sartu zion biktimari lepoan jugularra ebakiz eta hiltzeko asmoarekin, edo gutxienez, emaitza zein izango zen ohartzen zela». Jarraian, akusatua alde egin zuen korrika eta kaltetuak laguntza eskatu zuen tabernan. Berehala erietxera eraman zuten, non jugularra lotu eta zauria sendatu zioten.

hilberria ▶

### Ramona Zeberio Dorronsoro

Joan zara gu joango gara baina hemen gauden bitartean ez zaitugu inoiz ahaztuko

**Ilobak eta gainerako senideak**



oharra ▶ Elizkizunak Fatimako Andramariaren elizan, arratsaldeko 19:00etan.

ERRENTERIAN, 2007ko urtarrilaren 11n

hilberria ▶

### Santos Jauregi Zabala

Jauna

ATZO hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Goian bego—



Bere emaztea: Maria Jesus Albusu; seme alabak: Lurdes eta Migel M.Lasa, Juan Tomas eta Luisa Garmendia, German eta Kontxi Etxeberria, Merxe eta Jose M.Lasa; bilobak: Maialen, Joseba, Beñat, Mikel, Inigo, Ander eta Jone; anai-arrebak: Josefa (+) eta Paulino Beraza (+), Pedro, Carmen eta Bartolome Elustondo (+), Maria eta Juan Eceiza (+), Mercedes (Lekaima), Juana (Lekaima); ezkon anai-arrebak: Germana (+) eta Manuel (+), Valentin (+) eta Carmen, Francisco (+) eta Maria Luisa, Hilario (+) eta Jesusa, Agustina; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorputz bella Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan dago goizeko 11:00ak arte.

TOLOSAN, 2007ko Urtarrilaren 11n



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Irura.** Udalak Landa-ingururako Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren barruan bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrilean edo otsailean hasita: Euskal sukaldaritza sortzaile berria eta Ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua. Beraz, adin-nagusiko interesatuek udaletxean, liburutegian edo 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena. Kultura.irura@udal.gipuzkoa.net -era idatziz urtarrilaren 19a baino lehen.

**Tolosa.** Ostiral Meheko danborrada antolatzeke bilera, 19:30ean Kultur Etxean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Workingman's death* filma gaur ikusgai zine forumean, 19:15ean eta 21:45ean Leidor aretoan.

**Herria.** Testua.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Ana Jesus Ansorenaren zeramika koadro lanak ikusgai, jubilatuen tabernan, igandera arte.

**Tolosa.** Hondakin Ingurugiro erakusketak ikusgai izango da urtarrilaren 13a bitarte Aranburu Jauregin. Bisita-orduak 17:30etik 20:30era.

**Tolosa.** Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketak ikusgai da Aranburun hil honen 20ra arte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
 Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Irauli uhinak.  
 21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Fruta, esnekiak eta ogia dastatu zituzten, besteak beste. HITZA



Bizi Bihotz elkarteko kideek eman zituzten azalpenak. HITZA

# Gosari osasungarria dastatzen

**TOLOSA ▶ 'Gosari Osasungarria' jarduera burutu zuten herenegun Laskorain Ikastolako gaztetxoek, «elikaduraren garrantziaz jabetzeko» helburuz**



Arreta handiz jarraitu zituzten Laskoraino gaztetxoek Bizi Bihotz elkarteko gomendioak. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**E**guberrietako oporrak igaro dira, eta eguneroko martxa hartu beharra esan nahi du horrek, hau da, lanean, etxean, edota ikastetxean, ohiko jarduerari ekitea. Dena den, horretaz gain, beste jarduera batera ere bueltatzea esan nahi du, ohiko gure elikadurara hain zuzen ere. Gehiegikeriez beteriko bazkariak eta afariak izan ditugu igaro berri diren jai egunetan, eta gorpuzari atseden ematea beharrezkoa izaten da osasuntsu mantentzeko.

Tolosako Laskorain Ikastolan, esaterako, herenegun ekimen berezia antolatu zuten, *Gosari Osasungarria* jarduera, hain zuzen. «Elikadurak gure osasunean zein garrantzi duen jabetzeko» helburuz burutu zuten ekintza hori, eta horretarako, Bizi Bihotz elkarteko kideak gonbidatu zituzten. Gosari egoki bat zein jakirekin osatua egon behar den azaldu zuten hauek, eta azalpenen ostean Ikastolan bertan prestatu zuten gosaria, eta ondoren noski probatu egin zuten ikasleek gosari osasungarria.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa



**URTE ASKOAN**  
 Maria Jose Amundarain (Tolosa). Zorionak etbekeen partetik.

**hitza** agurren tarteak

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**TOLARE-SAGARDOTEGIA**

**SARASOLA**

Larunbata eta igandetan eguerdian irekita  
 Inaugurazioa larunbatean:  
**TRIKITILARI ETA BERTSOLARIAK**

**Jatorrizko Sagardoa**  
 Sagardotegia - ASTEASU  
 Tel.: 943 69 02 83  
 639 77 84 20